KONGESTIO PELBIKOAREN SINDROMEA – ENBOLIZAZIOA -

Pelbiseko barizeak bena-kordoi dilatatuak dira, eta abdomeneko barrunbearen barruan daude, umetokiaren eta obulutegien inguruan. Zain bat nahikoa ez denean, kongestionatuta eta dilatatuta egongo da, barize mingarri batean endekatuta, eta horrek **Kongestio Pelbikoaren Sindromea** (**KPS**) izeneko min kronikoa eragin dezake.

Enbolizazioa paziente sintomatikoek aukeratzen duten tratamendua da. Barize-zaina kontrolatuta eta nahita enbolizatzean (buxatzean) datza.

Prozedura hori erradiologia interbentzionistako gelan egiten da, fluoroskopiak gidatuta (X izpiak) eta sedaziorik gabe.

GOMENDIOAK ALTA EMATEAN:

- Interbentzioaren aurreko minaren antzekoa senti dezakezu hurrengo 15 egunetan; horrek ez du esan nahi tratamenduak porrot egin duenik, normala da. Hala bada, hartu (parazetamola/8 ordu) eta/edo hanturaren aurkakoa (ibuprofenoa/8 ordu digestio-tolerantzia zainduz). Ez hartu Aspirinarik.
- Baliteke prozeduraren ondorengo egunetan sukar pixka bat izatea. Galdetu medikuari astebete baino gehiago irauten badu edo tenperatura 38ºtik gorakoa baduzu edo eta hotzikarak agertuz gero, lehenengo 24-48 orduetan.
- Prozeduraren ondorengo 15 egunetan, saihestu kirol-ahalegina eta pisuak hartzea, egin bizimodu normala.
- Apositu bat utziko zaizu, 3 orduren buruan ken dezakezuna.
- Hematoma txiki bat izan dezakezu ziztada-eremuan, egun gutxi barru desagertu egingo zaizuna.